

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3248

*AGINDUA, 2018ko ekainaren 8koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak deklaratzeko dena.*

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorritz, eta Dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari, eta goi-mailako epaileen izaera honako hauei emango die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2018ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I. eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Deklarazioa indarrean sartuko da agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denean.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2018koa ekainaren 8a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2018ko ekainaren 22a, ostirala

## I. ERANSKINA

## GOI-MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZENDATUTAKOEN ZERRENDA

Abizenak, izen	Expediente	Modalitatea	Kategoria
Amondarain Urdampilleta, Javier	601/18/D	Bela	Kirolaria
Ansoleaga Goirigolzarri, Itziar	605/18/D	Herri Kirolak	Kirolaria
Arana Antoñanzas, Diego	581/18/D	Belarretako hockeya	Kirolaria
Areitio Elordui, Mikel	574/18/D	Herri Kirolak	Kirolaria
Astorquiza Orozco, Iker	571/18/D	Herri Kirolak	Kirolaria
Carballo Moreda, Ion	566/18/D	Piraguismoa	Kirolaria
Del Campo Hernández, Juan	585/18/D	Neguko kirolak	Kirolaria
Díaz Urrutxua, Martín	568/18/D	Herri Kirolak	Kirolaria
Echeverria Martinez, Maitane	607/18/D	Eskubaloia	Kirolaria
Eguibar Bretón, Lucas	591/18/D	Neguko kirolak	Kirolaria
Espinar Labian, Patricia	570/18/D	Euskal Pilota	Kirolaria
Etxeberria Delgado, Odei	565/18/D	Piraguismoa	Kirolaria
Frades Larralde Gurutze	580/18/D	Triatloia	Kirolaria
García Galarraga, Maialen	589/18/D	Belarretakoa hockeya	Kirolaria
Gobantes Abrisqueta, Galder	567/18/D	Herri Kirolak	Kirolaria
Goikoetxea Astaburuaga, Irati	604/18/D	Piraguismoa	Kirolaria
Iparragirre Alustiza, Sara	610/18/D	Saskibaloia	Kirolaria
Iribar Jauregi, Unai	592/18/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Lazcano Guimerans, Maria Begoña	588/18/D	Piraguismoa	Kirolaria
Legazkue Agirre, Ander	598/18/D	Arraunketa	Kirolaria
Martinez de Albornoz Marques, Iñigo	609/18/D	Mendia	Kirolaria
Martinez Diago, Ibon	596/18/D	Gorren saskibaloia	Kirolaria
Mouriz Dopico, David	569/18/D	Saskibaloia gurpil-aulkian	Kirolaria
Muñoz Diez, María	562/18/D	Patinajea	Kirolaria
Olano Olarra, Xabier	563/18/D	Piraguismoa	Kirolaria
Olea Gonzalez, Ander	579/18/D	Herri Kirolak	Kirolaria
Orozco Dominguez, Arkaitz	577/18/D	Herri Kirolak	Kirolaria
Orozco Olabarrieta, Joseba	578/18/D	Herri Kirolak	Kirolaria
Pereda Elorduy, Xabier	597/18/D	Karatea	Kirolaria
Pineda Matabuena, Jorge	603/18/D	Arraunketa egokitua	Kirolaria
Rojo Garcia, Imanol	594/18/D	Neguko kirolak	Kirolaria
Ugarte Aurrekoetxea, Eriz	575/18/D	Herri Kirolak	Kirolaria
Uranga Aizpurua, Alex	590/18/D	Surfa	Kirolaria
Vizuite Fernandez, Jagoba	583/18/D	Karatea	Kirolaria
Elorduy Pereda, Asier	94/18/T	Karatea	Teknikaria
Vizuite Fernandez, Angel	90/18/T	Karatea	Teknikaria
De Burgos Bengoechea, Ricardo	13/18/J	Futbola	Epailea